



HAL
open science

”Kakola eta Papillot” tobera

Jean Haritschelhar

► **To cite this version:**

Jean Haritschelhar. ”Kakola eta Papillot” tobera. Bat : soziolinguistika aldizkaria : Hizkuntza normalizazioa eta glotopolitika aldizkaria, 2008, 67. artxibo-00308885

HAL Id: artxibo-00308885

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00308885v1>

Submitted on 4 Aug 2008

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

TOBERA

Kakola eta Papillot

Auzitegian

Presidenta Ni naiz auzitegi huntako Presidenta. Ikusiz bi eskontgai hauien arteko auzia zoin den seriosa, minkatsa eta irrisku handikoa, gure errepublikako presidentak ber-berak igorri nau auzi hunen xuritzerat. Huna berak eskutik eskurat eman dautan titulu-papera (*Irakurtzen du*) : « *Liberté, Egalité, Fraternité... Vue l'émotion suscitée dans le pays par le procès Kakola-Papillot. Vue la dégradation de la morale publique qu'il étale. Vues les complicités frontalières qui ne manquent pas d'exploiter cette situation pour attenter à la sécurité de l'Etat et à la continuité du régime...* »

Eta, jakin zazue hitz hauk guziak pizatzuz izkiriatuak izan direla. Eta ez badituzue ontsa konprenitu, huna segida. Hau segur hobekiago konprenituko baituzue. Nerekin jin direla hunarat berrehun CRS. Eta hanbat gaxto hemen norbait oldartzen bada, oihuz, xixtuz edo bertze edozoin moldez, denek hain maite ditugun Liberté, Egalité, Fraternité horien kontra. Oldartzen denak irriskatzen ditu zonbait pereka lepo zokoan eta gainerat amanda eta presondegia. Eta jakin zazue, nik, justizia, gisa hartarat eginen dutala. Beraz zuen onetan, atxikatzue ongi hetsirik zuen gostuz zirritu guziak. Gure lege zaharrak dion bezala, defendium est, por Dios y la Patria, durante lé proceso, tussare, kakare, todo tuti kuantu y xopinare tambien est defenditum, erran gabe, Dominix tecum.

Beraz populua egon bedi zintzo, errespeturekin eta ixil... Eta orain grefiera jaunak irakur dezala akusamendua.

II

Grefiera (*Luma handi bat eskuan, luneta txar batzu ken-emanka dabilzkala, askotan ezin irakurtuz*)

Affaire Kakola-Papillot

Article premier : Nous accusons le sieur Kakola et la particulière Papillot de pornographie avec les yeux et tout le saint Frusquin.

Article deux : Lehen artikulu horrek nahi du erran, hauek biek, iragan igandean, karga bat ederra bildu zutela Izpegin... Eta etxerat heldu zirelarik, Aduanetarik goraxago, biak bide errekarat erori zirela... (*Irriz*). Nik ere bildu nuen, iragan igandean, zama bat ederra, bainan ez nintzen errekarat joan... Gizon den gizonak, jakin behar du xutik egoten.

Article deux : Ba, eta ahantzi dut erraiteko, biak arroilarat erori-ta, ez zirela han lokartu. Euri lantzurda izana gatik eta aire freskoa, ez omen zuten halere hotzik senditu (*Irriz karkailaka*).

Article deux : Nous accusons les ci-devant d'avoir, par leur attitude, occasionné des remous populaires, compromettant la sécurité de l'Etat et la paix publique dans cette zone frontalière. Alabainan norbait joan da gure guarder salatzerat jende pare bat ari zela hor gaindi zerri pasan. Guardak joan dira ikusterat, bainan jende pare trixte hunek ez ditu guardak utzi gorputzen miatzerat... Eta biek, zernahi zikinkeria erranez, offensant pour la dignité française, ihes egin dute lasterka Izpegiko leporat... Eta, han, espainol karabineroak beren laguntzerat deitu dituzte, oi-hu saminez ziotela : Au secours, au viol... au secours, au viol !... Eta dakigun bezala, Espainian, ikaragarriko errespetua baita pour la personne humaine et sa dignité morale, karabineroek berehala apuntatu dituzte beren baionetak eskopeta muturrean eta, kargado fuego, kargado fuego, orro eginez, tirokatu dituzte gure guardak.

Eta, horra nola bertze gerla bat abantxu hasi zaukun hemen berean. Ez baiginuen bertze beharragorik... nik badakit gero gerlaren berri... Je suis ancien combattant... (*Hasten da nigarrez, ahatzek bezalako orro batzu botatuz*). Ancien de Verdun. Ez ! Gehiago ! Ez... Holakorik ez ! Holako gertakariari pentsatuz, ez naiz ni kapable akusamendu luze hunen aintzinat irakurtzeko... Badira oraino bertze hamar artikulu... Aski dituzue irakurtzea herriko etxeko afixa-lekuan... (*Orroz marrumaka erretiratzen da*)

III

Uxerra

(*Bizi-bizia agertuz eta mintzatuz...*)

Barkatu jaun grefiera... Ni naiz uxerra. Eta uxerra bezala, ez naiteke egon aipatu gabe, zuk ezin irakurtu dituzun hamar artikulu horietarik bat. Hemen mintzo naiz Sécurité Sociale-aren izenean.

Jakin behar du populuak nola Kakola eta Papillotek, delako arroila hartan etzanik zirelarik, arrapatu zutela hotz-bero bat. Eta nola, mihikuak, bat eta bertzea eri kausitu zituen. Batek zuela "la pépie pernicieuse", zintzurreko min ezin sendatu bat eta bertzeak "des polypes angéliques", emazte min misteriozko bat.

Horiek zirela eta, mihikuak egin diozkate, bati hamabi bisita, bertzeari hamar, eta baxotxa izan dira hiru-na aldiz "spécialiste" baten ganat... Eta geroztik etxean daude "en convalescence".

Eta orai biek eskatzen dute "une pension à vie pour incapacité permanente". Eta horien "demande de pension" izan da "de la commune à l'arrondissement, de l'arrondissement à la région, de la région à la Capitale"... Hola egiten baitira gauzak Frantziako legez.

Eta, ba la commune, ba l'arrondissement, ba la Capitale-k ez ados izanik, egin dute denek "une contre-enquête"... Eta nola hortan ere ez baitziren denak ados, orai egiten ari gira une "sur-enquête".

Badakizue horiek guziak gostatzen direla. Eta ez erran horieri bien gostuz hainitz zerri, bazterretan gizentzen direla. Ez da hemen zerririk, horiek biak baizik. Eta hunarat jina naiz Sécurité Sociale-aren izenean erraiterat zerri gizenduak behar direla gazitu... Erran nahi dut eta pentsatzen dut denek konprenitu nauzuela, horiek biak direla bakarrik hobendun eta bertze nehor ez... Horien hobena frantsesez deitzen dugu : “Dilapidation des deniers de l’Etat”. Horra zertan den Frantzia... Guk, frantses onek, behar dugu ohointza horien guzien kontra fermu agertu... Fermu ! Artetik erraiteko, jaun presidenta, pentsatzen dut laster kobratuko dutala inkesta hunentzat zor dautazun dirua... Eta ez hiru ilabeteren buruan, azken inkestarentzat bezala. Orai, jende maiteak, argituak zirezte. Pentsatzen dut behar den kondenamendua eskatuko duzuela ohoin hauein kontra... Esperantza hunekin, Errepublikaren zerbitzari on, leial guziekin oihu egiten dut : “Vive la République, vive la France !”

IV

Uxerra Eta orai, nere ondotik, mintzatuko zautzue, lehen lekuko bezala, Andere Xiriket, Donibane-Lohizuneko arrain-saltzale errespeta garria.

Xiriket *(Kasik hobe, gizon bat balitz emazte arropuz beztitua)*
Espres-espresa etorria naiz Donibanetik, “Pour témoigner” zikintsu zikin horren kontra. Uste nuen ni nintzela horren emaztegai bakarra. “Toujours il me disait” zu zare nere biziko emazteki bakarra... Ez dut behin ere ezagutu bertze emaztekerik eta ez ezagutu nahi ere... “Alors, j’ai appris par le journal” jadanik hiru aldiz alargundurik izana dela. Eta gañerat, bertze emazteki batekin dabillala, “en plus de moi”... Beñ erran nion : “Dis donc, puttu, egia da ez zarela sekulan bertze emazteki batekin ibili !... Il m’avait juré et tout, que non... Ezetz eta ezetz... Qu’il était encore vierge. Beñ bakarrik, quand il était jeune homme , etxeko arrosa ondoen giblean gorderik, il avait fait muxu-muxu... Baiña pixka bat bakarrik eta sur la joue seulement (*Kakolari buruz itzuliz*). Ez dik balio ez neri behatzia hire korrokoña begi horiekin ! Egun hartan, aperitifa ere pagatu nion. Parce que moi, je pourrais pas en dire autant. Bada bortz urte alargundua naizela-ta... Mais j’étais contente de me remarier hoin garbi kontzerbatu donado batekin... Hola bildu nau bere saretarat, mutur zuri zikiñ horrek. Ni kontent nintzen eta, en moi-même, erraiten nuen : S’il est encore intact, je vais faire oui son éducation. Eta horra non ikusten duten en photo et tout, avec cette perrèque de fille, qui est avec lui... Segurki hirtzat hobia dun ! Bañan kasu ematen ahal dion hire buruari ! Zeren-eta, geroztik hobeki ikasi ditiñat gizon xarmanta horren berriak... Bere lehen andria jotzen omen zuen taloa bezala. Eta azkenian hil ziñan. Bigarrena ez ziñan jotzen, bañan harek jotzen ziñan hau. Eta hunek pozoñatu ziñan hura... Avec la mort aux rats... Kafe-esnian nahasi-ta, gero sekulako tripako miñekin.

Mihikua ekarri eta la grippe asiatique zuela-ta, fuera lurperat. Hirugarren andria berriz, bizirik erre ziñan, ezantzaz busti, krak su eman-eta. Gero egin ziteñan inkesta... Un accident gertatu omen zunan... Orai ikusiko zer gertatuko den laugarren andriarekin. Bañan, uste diñat, bat ala bertzea, elgar iduri zareztela. Bat urde eta bertzea zerri. Qui se ressemble s'assemble.

Ez du balio, jaun presidenta, hauk bien kondenatzea. Berdiñ batek bertzea laster hilen du... Zaude ordu arte beha... Aski duzu orduan, bizirik gelditu dena itsasorat botatzea arrañeri. Eta ez balinbatzare hortakotz kapable, guk eginen dugu lana... Aski duzu egortzea le colis nere adrezerat : rue de la Baleine, Saint-Jean-de-Luz. Eta hola bi zerri gutiago izanen dira lur hunen zikintzeko.

Eta ez bainaiz etorri Baigorriat bakarrik zikintsu zikiñ haukien gatik, bañan ere zueri deneri atuna saltzerat, atun gose dena, hurbil dadiela nere ganat... (*Oihuz*) Atun, atun ! Atun frais !... Atun, atun !

V

Uxerra Eta orai hurbil dadiela zikitero jauna, bigarren lekukoa.

Zikitero (*Zakarki mintzo*) Deubrua sar balakio, nik ez dakit zer duen Donibaneko arrantzari atso zantzail horrek hola oldartzeko gaur hemen auzituak diren bi presunen kontra. Nik ongi ezagutzen ditut Kakola jauna eta Papillot anderea. Ni, zikitero bainaiz, biak nere klientak ziren. Eta ni horietaz kontent naizen bezala, segur naiz horiek ere arras kontent direla nere zerbitzuez. Ez dira horiek joan, hemen zirezten bertze papo handi batzu bezala, mahaxelaren arrapatzerat, zikitero lana egiteko. Gu, konda ez bagine bezala ! Nik, inguruko mahaxal guziak desafiatzen ditut, zoinek hobeki egin zikitatze lana. Nik berdin, réussite cent pour cent garantie, zikitatzen ditut zahar ala gazte, hiru edo lau zangotako, lumadun edo iledun, adar gabe ala adardun... Nor da hemengo mahaxeletan, bertze hoinbertze egin dezakenik ? Nere lana, beheiti ari balinbada zonbait denbora huntan, badakit hori noren falta den. Hor, Mehain aldeko ustel bat, hasi zen nere kontra propaganda egiten. Nik zikitatuko zerrama baten ganik, ukan omen ditu zortzi zerri-kume... Eta hihhi eta ahaha nere bizkar ! Eta, dena gezurrez ! Ez dadiela nere eskuetarot eror. Irakutsiko baitiot nik zikitatueterik ez dela umerik sortzen... Hori guzia, nere kontra propaganda egiteko. Nere ganik klienten urruntzeko. Deubru ustel zikina !

Eta gauza bera zaiote gertatzen gaur Kakola jauna eta Papillot andereari. Propaganda beren kontra, dena jeloskeriaz, gaxtakeriaz... Nere zikitatzeko moldea, basa eta xaharrekoa omen da... Orai hor omen dituzte pillurak, pintzetak, pikurak, nik dakita zer !... Bainan aitortzen ez dutana hauxe da : Beren molde berriekin haragiari kentzen diozkatela beren gustu eta indar naturalak. Ebaki, moztu, kendu... dira

bakarrik molde naturalak zikitatzeko... Gaineratekoak ez dira zikinkeria batzu baizik.

Eta segur naiz jaun presidenta, hemen den jendeak ni bezela pentsatzen duela... Eta, horren seguretik jakiteko, galdatzen diotet hemen diren guzieri, beren eskua altxa dezaten, ez balinbadira nerekin ados. (*Doi bat ixildu ondoan*) Ikusten duzu, jaun presidenta, nehork edo kasik nehork ez du eskurik altxatu.

Beraz, oro ene zikitatzeko moldearen alde dira. Hortakotz galdatzen dautzut berehala libra ditzatzun Papillot eta Kakola. Eskandala bat bailitake zuk horien kondenatzea populu guzia beren alde dutelarik.

VI

Uxerra Orai, mintzatuko zautzue jaun Prokuradorea.

Prokuradorea Iragan astean, Pariseko Gobernuak au complet bildu zen, auzi huntaz mintzatzeko. Eta nihaurre, Amerika Florida eskualdean bainintzen, gobernuak harat egorria afera serio baten zuzentzerat, Minixtroen buruzagi lehenak avion berezi bat bidali daut, manua emanaz berehala itzul nadien Frantzirat hemengo auziaz okupatzeko. Eta jin naiz hunarat, gobernuaren izenean eta haren podore guziekin, gauzen trenkatzerat.

Nere lehen hitzak izanen dira zikitero jaunarentzat. Ez duzia lotsarik, zikitero jauna, mintzatu ziren bezala mintzatzeko ? Zuk jali eleak ez dira legezkoak, izter-eleak baizik. Bakar-bakarra zira hemen agertu, Kakola-Papillot horien alde mintzatzeko. Nolaz dezakezu deklaratu populu guzia beren alde dutela ? Jende trixte horiek arrapatuak izan dira, denen agerian eta denak agerian, postura eskandalagarri batean. Horien gatik, abantxu sortu da hemen gerla bat, bere mobilisation générale, évacuation, champ de bataille eta gainerateko ondorio ikaragarri guziekin... Eta, zure arabera, horiek guziak deus ez dira, deus ; zure griña bakarra da lanjerrean dela zure zikitatzeko molde zaharra. Nun duzu adimendua ? Nun duzu bihotza, zikitero jauna ? Nihungo populutan, nihoizko mendetan, ez da izan barkamendurik holako krima ikaragarriarentzat. Ravailac-ek hil zuen Henri laugarrena. Haren krima, haukiena baino ttipiagoa zelarik, Ravailac-i, lehenik hil-puñala atxikitzen zuen eskua moztu zioten. Gero puskatu zuten eta erre. Berrikitan oraino, Afrika zentroan, Zinbunbun erregexkari jazarri den gizon bat arrastatu dute, gerrenean sartu, emeki erre ta harekin zikiro jatea egin.

Holako gaztiguak, sekulan baino beharragoak dira gure Frantzia gaixo huntan, zeren-eta, autoritate eskasez errekatzen ari baigira. Aristoteles, filosofus filosoforum, erran nahi baita filosofo guzien nausiak zion bezala : Sua hil nahi balin baduzu, hil su-emailea.

Bi kriminel haukien hiltzea da, nik eskatzen dudana gure gobernuaren izenean. Bai, hiltzea merezi dute. Gure erran zahar batek dio : Hobe

dela jeneral zahar bat hila baino, asto zahar bat bizi. Ez dugu izanen pietaterik jende okaztagarri haukientzat... Ez diotegu utziko, ez-eta ere asto zaharraren bizia... Hil, hil eta hil, horra nere sententzia.

VII

Uxerra Eta orai, mintza bedi akusatu hauien abokata.

Abokata Nere pentsamendua da, jaun prokuradorearen elek merezi dutela zikitatze on bat. Zertaz alabainan dira akusatuak Kakola jauna eta Papillot anderea ?... Lurra ohetzat eta zerua teiltatu, gauza naturalak egin dituztela ?... Eta gero zer !... Zer da ederragorik ?... Ez ote dute gauza bera egiten gure mendietan marro ta ardiek, gure soroetan behi eta zezenek, gure etxe-inguruetan, oilo ta oilarrek ? Garderen egitekoa ote da gauza horren debekatzea ? Guardak, jendarmak, ez ginuen bertze beharragorik. Kakola-Papillotek egin dutena zikina balinbada, ni eta zu, jaun prokuradorea, eta hemen giren guziak, berdin zikinak gira. Zeren-eta oro mundurat jinak baigira holako egitate baten ondotik. Ez balinbaduzu nahi holakorik gerta dadin, aski duzu gobernuari eskatzea, oro, zu, ni et hemen giren guziak pasa gaiten zikiteron eskutarik.

Eta pentsatzen dut, jaun prokuradorea, holako lege bat heldu balitz, zu zintazkela, etsenplu emaile, lerroaren lehen buru, zikiteron aintzinean pasatzeko. Oxtian aipatu duzun Aristoteles handiak holaxet zion : Zikiro zikiriorum gobernu non zikiratum. Horrek erran nahi baitu, populua jarraikitzea ardiesteko, gobernuak behar duela etsenplua eman. Eta gero zer gehiago ? Beldur zireztea mugaz bertzaldetik jin dadien atakada bat ?... Nun da Napoleonen denborako hemengotar Harispe jeneral famatua ?... Nor ez da orroit haren orduko elez ? Harek hauxet zion : Espainol armada guzia arrastatzeko, aski direla zonbait ehun Eskualdun ezartzea, lerro-lerro, gure mukan. Lerro-lerro eta armarik gabe... Ipurdiz Espainiari ! Heien uzkerak aski direla espainol armada guzia Cadix-eraino ihesi igortzeko.

Ordu hetan ba, bazen autoritatea Frantzian eta errespetua gure mugetan. Ordu hetan, Frantziako gobernuak ez baitzuen Frantsesik hiltzerat kondenatzen. Etsai arrotzak baizik... Pentsatzen dut, jaun presidenta, ez duzula ehortzi nahiko la grandeur de la patrie... Bizirik eta libro utziko ditutzula gaurko bi akusatuak. Hola jokatzuz, galtzale izanen dira gure etsaiak... Irabazle aldiz : la France !

VIII

Presidenta Eta huna orai nere sententzia.

Auzi hunen gora-behera eta harat-hunat guziak ikerturik, beti orroituz que la justice doit être indépendante des influences du Pouvoir en place, zerua lekuko eta en mon âme et conscience, hauxe da nere deliberamendua.

Lehenik Kakola ezartzen dut zikiteron eskuetan, Zikiterori manua emanez, ken ditzon bere ontasun guziak, dituenak eta ez dituenak...
Hola Kakolak bakea emanen baitaiku bere ibilpide nahasiekin.
Bigarrenekorik, Kakola hola iditu eta gero, kondenatzen dut Papillot, Kakolarekin ezkontzerat, dibortzatzeko baimenarik gabe. Behi ñapurraren hezteko molderik hoberena baita, haren uztartzea idi batekin... Bizi ditela biak betikotz uztarri berari lotuak.
Pentsatzen dut populuak, gogo onez duela onhartuko nere sententzia eta berehala, ponduz-pondu, nere sententzia konplitua izanen dela.
Bertzerik gabe, auzi hau behin eta betikotz bururatua izan dadiela !

P. LARZABAL
1973ko apirilari